



## HEZKUNTZAKO LABORALAK

### LAN HITZARMENAREN NEGOZIAZIOA

Guk hartutako konpromisoarekin aurrera jarraituz, Lan Hitzarmenaren negoziazioaren egoerari buruzko informazioa ematen dizuegu.

#### Momentuz Administrazioak puntu hauek onartzea lortu dugu:

- Urteko laneko ordu kopuru maximoa 1480tik 1462ra murriztea.
- Fisioterapeuta, Lan Terapeuta eta Gizarte langileen kategoriak Hezkuntzako beste Diplomatuekin homologatzea, 2 urteko epean.
- 12000 euroko Gizarte fondoaren ezarpena.
- Kontratatzeko jardun minimoa herenekoa izatea.
- Lanean gertatutako kalte-materialak ekiditeko konpentsazio bat ezartzea (betaurrekoak, etab).
- 165 egun lan egiteagatik uda kobratzea. Hau da dagoen punturik gatazkatsuena, alde batetik Administrazioak oporraldiko 15 egun galtzarekin lotzen duelako eta beste alde batetik irakasleen modu berdinean aplikatzeko orduan arazoak egon daitezkeelako.

Momentu honetan Negoziazioan 3 puntu hauek tratatzen ari dira:

#### Udako kobratzearen ezarpena

STEE-EILASEk irakasleei aplikatzen zaionaren antzekoa egitea eta oporraldi egunak mantentzea defendatzen du. Administrazioaren planteamendua onartezina dela uste dugu, nahiz eta udaren kobraketa aurrerapen handia izan, ezin dugu ahaztu sektorearen zati batentzako izango dela, oporraldia berriz sektore osoak lehendik eskuratutako eskubidea da.

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20006 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org



## **Asteko lan orduen ezarpena Hezkuntza Laguntzako Espezialistentzat**

Hau Negoziazioaren beste puntu gogorra da. Urteko ordu kopuruaren ezarpena aurrerapen ikaragarria den arren ez da nahikoa, asteko ordu kopuru maximoa ezartzearekin gaur egun kasu batzuetan dauden jardunaldi maratonianoak desagertzea lortuko litzateke.

## **Erosmen ahalmena berreskuratzeko soldataren igoera**

Ordainsarien negoziazioa mahai sektorialetan egin behar dela mantentzen du STEE-EILASEk, orain arte negoziazioa mahai orokorrean egiten da, hauetan Funtzio Publikoan ordezkartza nagusia duten sindikatuek parte hartzen dute, hau da, gure mahai sektorialean bertan daudenak STEE-EILAS izan ezik.

STEE-EILASEk egoera erreza izan ez arren, soldataren igoera bat eskatzen du erosmen ahalmena berreskuratu ahal izateko.

## **Funtzioak**

Lan Hitzarmenaren Negoziazioarekin batera paraleloki mahai tekniko bat osatu da kolektibo ezberdinetako funtzioak aztertzeko.

Hezkuntza Laguntzako Espezialisten funtzioekin hasi gara, eta bi bilera besterik izan ez arren, dagoen desadostasuna nabaria da. Administrazioak funtzioen alde asistentziala behin eta berriro errepikatzen du (elikadura parenterala...) STEE-EILASEkoek aldiz, kategoriak duen izaera hezitzailea errebindikatzeko dugu.

Negoziatzen ari garen arren, egia da ezin garela erlaxatu. Horregatik negoziazioaren jarraipena egin dezazuen eskatzen dizuegu, behar izan ezker, modu arin eta eraginkorrean erantzun ahal izateko.

---

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20006 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org

---